

Gaia: 06/2024

**EBAZPENA, ADINEKOEN ERRENTAREN AITORPENARI BURUZ
AURKEZTUTAKO KEXA BATI BURUZKOA**

I.- KONTSULTA

1.- 2024ko apirilaren 21ean, adineko pertsonen kasuan pertsona fisikoen errenta-aitorpena aurkezteko prozedurari buruzko kexa bat jaso zen posta elektronikoz. Adierazi dutenez, gurasoek, adinekoek, ez dute jaso errenta-aitorpenaren likidazio automatikoa, eta foru Ogasunean hitzordua hartzeko eskatu zaie, egin ahal izateko.

Interesdunak adierazi du ez duela ulertzen nola ez zaien likidazio automatikoa bidaltzen adinekoei eta mendekoei, are gehiago, gurasoen kasuan bezala, diru-sarrerak eta gastuak oso argiak direnean jatorriari eta zenbatekoari dagokienez. Praktika hori datozen urteetan zuzentzeko eskatu du.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen

Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK) .

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez betetzeari buruz jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Gai honetan kexa bat aurkeztu da pertsona fisikoen errentaren aitortpenaren prozedurarekin lotuta, adineko eta mendeko pertsonen kasuan.

Kexa hirugarren batek aurkeztu duenez, maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuak, gaiak izapidetu, ebatzi eta jakinarazteari buruzkoak, 9. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, apirilaren 23an Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiko arduradunei (aurrerantzean, Zuzendaritza) helarazi zitzaizen jasotako kexa, informazioa emateko eta egoki irizitako gogoetak adierazteko eta argudiatzeko eskubidea bermatzeko, eta, aldi berean, zenbait galdera egin zitzaizkion, EEB honek beharrezkotzat jo baitzituen gaia behar bezala konpondu ahal izateko. Ildo horretan, Zuzendaritzak idazki bat bidali zuen maiatzaren 2an, bere gogoetak bilduz.

2.- Kexa 92 eta 88 urteko gurasoak dituen seme batek aurkeztu du. Seme horren gurasoek ez dute jaso errenta-aitortpenaren likidazio automatikoa, eta eskatu zaie hitzordua hartzeko, egin ahal izateko. Adierazi du aita 3. mailako mendekotasuna aitortua duela, eta, beraz, amaren eta hura zaintzeko kontratatutako pertsonaren laguntza behar duela bere zainketarako.

Interesdunak adierazi du ez zaiola normala iruditzen adineko pertsonari aitortpen automatizatua ez bidaltzea, are gehiago, gurasoen kasuan bezala, diru-sarrerak erabat argiak direnean jatorriari eta zenbatekoei dagokienez: aitaren pentsioa, errentan duten etxebizitza baten hileko sarrera eta foru Aldunditik aitaren laguntzailearentzat jasotzen duten laguntza. Gastuari dagokionez, hura zaintzeko kontratatutako pertsonaren ordainsaria.

Horregatik, datozen urteetan horrelako praktikak zuzentzeko eskatu du.

3.- Zuzendaritzak aurkeztutako idazkian, errenta-aitorpena aurkezteko dauden 3 modalitateak deskribatzen dira: (1) autolikidazio-proposamena, foru Ogasunak beharrezko informazio guztia duenean bakarrik prestatzen dena; (2) Internet modalitatea, zergadunak bere autolikidazioa Zergabidea plataformaren bidez prestatu eta aurkez dezakeena; eta (3) mekanizatua, hau da, aurrez aurreko arreta-modalitatea, non zergadunak dokumentazioa Errenta Mekanizatuko Bulego batean aurkezten duen eta teknikari batek izapidea egiten laguntzen dion.

Idazkian adierazten denez, aurkezpen-modalitateak hainbat kolektiborentzat prestatuta daude; izan ere, autolikidazio-proposamenen modalitateak eta Internetekoa etxetik telefonoz edo Internet bidez aurkeztu ahal izateko pentsatuta daude. Gainera, bi kasuetan telefono bidezko arreta dago eskuragarri, zerbitzu hurbilagoa eman ahal izateko. Horretarako, errenta-kanpainen telefono bidezko arreta-ordutegia arratsaldeko 20:00ak arte luzatzen da, eta 2024an 16 langile kontratatu dira zerbitzua indartzeko. Errenta-aitorpenaren konplexutasunagatik aurreko bi modalitateak egokiak ez badira, mekanizazio-zita bat adostu daiteke, Ogasuneko teknikari batek autolikidazioa egiten eta aurkezten laguntzeko.

Idazkian azpimarratzen denez, autolikidazio-proposamena prestatzen da soilik errenta-aitorpena egiteko behar den informazio guztia edo ia guztia dagoenean. Akatsik gabeko proposamenak baino ez zaizkie bidaltzen, eta, oro har, honako baldintza hauek betetzen dituzten zergadunei:

- Aurreko urtean errenta-aitorpena aurkeztu dutenak, aitorpena zein modalitatetan egin den kontuan hartu gabe.
- Honako onura edo eragiketa hauek bakarrik dituzten zergadunak: lan-etekinak, kapital higigarriaren etekinak (dibidenduak, kontu korronteetako eta bestelako finantza-produktuetako interesak, bizitza- edo ezintasun-aseguruak, Altxorraren letrak eta beste finantza-aktibo batzuen salmentak), inbertsio-funtsen salmentatik lortutako mozkinak, BGAEei egindako ekarpenengatiko murriztapenak, eta, azkenik, ondorengoengatiko eta etxebizitzarako ezintasunengatiko kenkariak eta inbertsioa etxebizitza-kontuen eta hipoteka-maileguen bidez.

Azken batean, autolikidazio-proposamena bidaltzea edo ez bidaltzea ez dago zergadunaren beraren esku, baizik eta aipatutako baldintzak betetzearen mende. Eta, aztertzen ari garen kasuan, Zuzendaritzak adierazi du 2023rako baldintza horiek ez zirela betetzen, eta, horregatik, ez zitzaiea autolikidazio-proposamena bidali, nahiz eta datozen urteetan bidali ahal izango zaien, betiere baldintzak betetzen badira.

4.- Aztergai dugun gaian, kexa nahitaez bete beharreko izapide bat egiteko prozedurari buruzkoa da, hala nola pertsona fisikoen errenta-aitorpenari buruzkoa, batez ere adinekoei (gurasoei, esaterako) likidazio-proposamen osatua ez bidaltzeak dakartzan zailtasunei buruzkoa.

Izapide hori aldeaz aurretik ezarritako gutxieneko diru-sarrerak gainditzen dituzten pertsona guztiek egin behar dute, eta hainbat modalitatetan egin daiteke; besteak beste, ikusi denez, foru Ogasunak berak bidaltzen die likidazioa automatikoki erabiltzaile batzuei. Azken aukera horrek, zalantzarik gabe, asko errazten dio kudeaketa herritarrari, zergadunak postaz edo webgunearen bidez jasotzen baitu foru Ogasunak dagoeneko betetako likidazio-proposamena. Proposamen hori egiteko, foru Ogasuna jaulkipen-datan eskuragarri dagoen zerga-informazioan oinarritzen da, eta, aitortpena zuzena dela egiaztatu ondoren, zergadunak autolikidazio-proposamena onartu behar du, bai telefonoz, bai errenta-kanpainaren webgunearen bidez.

Administrazioak berak autolikidazio-proposamenak bidaltzea guztiz bat dator kudeaketan berrikuntza bultzatzeari, administrazio elektronikoari eta EZSn egiten den desburokratizazioari buruzko erreferentziekin. Hori adierazten du EPJKk Eraginkortasunaren balioari dagokionez (6. artikulua):

6. Eraginkortasuna.

(...)

*f) Foru Administrazioaren sailak eta bere sektore publikoko erakunde ezberdinak langile publikoek **kudeaketa hobetzeko proposamenak egiteko espazio eta bideak sustatuko dituzte, euren unitate edo prozeduren eraginkortasun eta ekonomia hobetzera zuzendutakoak, horiei motibatutako erantzuna bermatuz, aukera arrazoiak direla eta ukatzen badira ere.***

(...)

Eta, halaber, kudeaketa onaren eta lanbide-jardueraren printzipioak aipatzen diren atalean, emaitzarik onenak lortzera eta herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen kalitatea eta eraginkortasuna etengabe hobetzera bideratuta daudenak.



3.3. Kudeaketa eta Berrikuntzaren kultura

a) Foru langile publikoek euren jarduera profesionalen garatzea eta proiektuetan, **sormena eta inizatiban inplikazio handiagoa dakarren kudeaketaren kultura garatuko dute**, baita publikoaren eremuan berrikuntza praktiken sustapena ere.

b) Orokorrean, foru langile publiko guztiak **administrazio elektronikoa modu eraginkorrean garatzearen alde aktiboki lan egingo dute**.

c) Era berean, **prozedura eta izapideak sinplifikatzea sustatuko dute**, hazkunde ekonomikoa sustatzeko eta zama burokratikoak ezabatzeko.

(...)

h) Era berean, euren erakundeak momentu bakoitzean planteatzen diren **metodo eta eronken eraldaketa eta egokitasun jarraituko kultura aurrera eramango dute**.

(...)

Eta KPJKk hau gehitzen du:

5.4 Kudeaketa eta berrikuntza publikoko eredu berria

(...)

d) **Berrikuntza modu sistematikoan sustatuko dute**, bai barne edo gobernu esparruan (bertan aktore nagusi izan behar baitira), bai kanpo esparruan ere, enpresa esparruan zein **zerbitzuen esparruan** berrikuntza sustatuko baitute.

e) Bereziki, beren ardurapeko departamentuan, zuzendaritza unitatean edo entitatean **berrikuntza kultura sustatuko dute**, sormena bultzatuz eta **kudeaketa publikoa egiteko modu berriak** modu arduratsuan esperimintatuz, hala, **hobekuntzak bultzatzeko**, edo gutxienez ikaskuntza kolektiboa sustatzen duten formulekin saiakerak egiteko.

(...)

Autolikidazio-proposamenak bidaltzea, beraz, zerga-sistema aurreratu baten adierazgarri da, zergadunentzat zein foru-administrazioarentzat berarentzat onura esanguratsuak eskaintzen dituen, ez bakarrik prozedura sinplifikatzen duelako, baizik eta zerga-betebeharra oro har betetzea errazten duelako, administrazio-eraginkortasuna errazten duelako, aitorten oker edo osatugabeen kopurua murrizten duelako, aitorten horien berrikuspenarekin eta zuzenketarekin lotutako lan-karga murrizten delako, eta bilketa zehatzagoa eta egokiagoa dakarrelako, zerga-sistema gardenagoa, irisgarriagoa eta efizienteagoa eginez, zergadunen nahiz gizarte osoaren mesedetan.

Bestalde, gai honetan bereziki kaltebera den kolektibo bat sartzen da, adineko pertsonak, kasu honetan 92 eta 88 urteko bikote bat. Aurreko ebazpenetan (2023/07, 2024/03, 2024/04) nabarmendu dugu ardura eta arreta berezia eskaini behar zaiela zenbait kolektibori, besteak beste, adinekoei eta/edo mendekoei. Kolektibo horrek, askotan, premia bereziak edo muga fisiko edo kognitiboak ditu, eta horrek zaildu egin ditzake bai eguneroko bizitza, bai administrazio-betebeharrak betetzea, kasu honetan bezala. Adinekoei eta mendekoei arreta emateko, ikuspegi sentikorra, ulerkorra eta gizabanakoarengan zentratua behar da, haren segurtasuna, erosotasuna eta duintasuna bermatzeko, eta, horregatik, behar diren neurri guztiak hartu behar dira beti, kolektibo horrek merezi duen zaintza eta profesionaltasun bereziarekin, zerbitzu publikoak eman eta eman ahal izan diezazkieten eskubidea eta betebeharra dutenei. Hala dio EZSk bere jokabide-kodeetan.

EPJKk ideia hori aipatzen du Errespetuaren balioaz hitz egitean, honako hau adieraztean:

7. Errespetua

(...)

*e) Modu berean, foru langile publikoek **arreta berezia izango dute, dimentsio etikotik, bereziki ahulak diren kolektiboekin harremanak izatean**, gizarte arrazoiak, arrazoi ekonomikoak edo edozein motatako arrazoiak direla eta, beharrezkoak diren ekintza positiboko neurriak hartuz eta pertsona horiekiko tratuan sentsibilitate eta enpatia berezia helaraziz, erakundeak sustatzen dituen politika publikoen eremuan.*

(...)

Antzeko zentzuan mintzatzen da KPJK Gobernu erlazionalaren printzipioaz eta herritarrei aktiboki entzutean, jardunbide egoki gisa hartzerakoan:

5.7 Harreman kapitalean oinarritutako gobernu eta herritarren entzute aktiboa

(...)

*f) **Bereziki enpatia erakutsi beharko dute Gipuzkoako gizartean premia gehien dituzten kolektiboekiko, horretarako, komunikazio tresna eraginkorrak eta eraikitzaileak garatuz; eta, hala, kolektibo horiei dagokion babesa emateko.***

(...)

Argi dago, beraz, EZSk kolektibo ahulenei edo behartsuenei arreta eta enpatia bereziki tratatzeko eskatzen duela, baldintza horregatik sistematik kanpo gera ez daitezten edo beren eskubideak eta betebeharrak murriztuta ikus ditzaten. Horregatik, logikoa dirudi pentsatzea kolektibo horien administrazio-izapidetzea zenbat eta gehiago erraztu, orduan eta zehatzago beteko dela EZSren espiritua.

Beraz, errenta-aitorpenaren likidazio automatikoen bidalketa kodeetan zerbitzu publikoen prestazioa sinplifikatzeari, desburokratizatzeari eta etengabe hobetzeari buruz adierazitakoarekin guztiz bat datorrela baieztatzeari integrazioa edo diskriminaziorik eza errazteko kolektibo jakin batzuei enpatia berezia izan behar zaiela gehitzen badiogu, egokia dirudi kolektibo horiek izatea, hain zuzen ere, likidazio automatiko horien hartzaile.

Hala ere, ezin dugu ahaztu, edozein pertsonari, bereziki kalteberak direnei barne, izapidea erraztu ahal izateko, Zuzendaritzak adierazi duen bezala, ezinbestekoa dela foru Ogasunak autolikidazio-proposamen horiek egitea ahalbidetuko dion informazio osoa eta eguneratua izatea. Ez luke ezertarako balioko izapidea errazteagatik modu okerrean egiteak; beraz, kasu honetan errenta-aitorpena behar bezala egitea lehenesten da, eta horrek zergadunari ez ezik (informazio ezagatik likidazioa zuzena izan ez balitz zuzentzea saihestuz) gizarte osoari ere mesede egiten dio, ez baitugu ahaztu behar zerbitzu horren kudeaketa zuzenak onura ugari dituela, hala nola zerbitzu publikoen finantzaketa, aberastasunaren birbanaketa, efizientzia eta egonkortasun ekonomikoa edo iruzurraren murrizketa eta zerga-ihesa, batzuk aipatzearen. Beraz, logikoa da, baita zuhurra ere, autolikidazio-proposamenak likidazio egokia bermatuko duten beharrezko datu guztiak izateko gutxieneko bermea dagoen kasuetan bakarrik bidaltzea.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez, 2024ko ekainaren 27an

EBAZPENA

Lehenengoa. -Kontuan hartuta Foru Enplegu Publikoaren Etika eta Kudeaketa Oneraren Kodearen artikuluetan Eraginkortasunaren eta Errespetuaren balioei eta Kudeaketa- eta Berrikuntza-kulturaren printzipioari buruz ezarritakoa, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kideen eta goi-kargudun publiko eta parekatuen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean Kudeaketa eta Berrikuntza publikoaren eredu berriaren eta herritarren harreman- eta entzute aktiboaren printzipioei dagokienez ezarritakoa, uste dugu Ogasuna eta Finantzak foru Departamentuak errenta-aitorpenaren autolikidazio-proposamenen zerbitzua ematean ezarritako funtzionamendu-parametroak jarraitzen dituela.

Bigarrena. - Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemak bereziki kalteberak diren kolektiboetako zerbitzuak ematean izan behar den arreta bereziari dagokionez ezarritakoa bermatzeko, eta izapideak desburokratizatzean eta inklusioa eta irisgarritasuna sustatzean haien beharrak kontuan hartuko direla ziurtatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuei, Ogasuna eta Finantzak Departamentua barne, gomendatzen diegu honako neurri hauek har ditzatela funtzionamendu-parametro horien barruan:

- 1) Kolektibo kalteberak eta haien ordezkatzen dituzten erakundeak inplikatzeko politiketara eta prozedurei buruzko izapideak eta aholkularitza diseinatzeko eta berrikusteko prozesuan.
- 2) Aldian-aldian erabiltzaileengandik *feedbacka* jasotzea, prozesuak beren beharren eta esperientzien arabera doitzeko eta hobetzeko.
- 3) Irisgarritasunari eta erabilgarritasunari buruzko aldizkako auditoriak egitea, izapideetan arazoak eta hobekuntza-arloak identifikatzeko eta izapideek inklusiboak eta eskuragarriak izaten jarraituko dutela ziurtatzeko.
- 4) Talde kalteberentzat garrantzitsuak eta erabilgarriak diren eduki digitalak eta lineako zerbitzuak sortzea eta sustatzea, hizkuntzetan eta formatu irisgarrietan.
- 5) Automatizazio-teknologiak erabiltzea prozesuak sinplifikatzeko eta erabiltzaileek eskuz eman behar duten informazio kopurua murrizteko.
- 6) Enplegatu publikoak gaitzea pertsona kalteberen komunikazio- eta arreta-trebetasunetan, bai eta laguntza-teknologiaren erabileran ere.

Irene Berasaluze Lazkano
Erakundearen Etika Batzordeko lehendakaria